

## Bidebieta

## Ardo Txokoa, elkarrizketa gunea

Mirakruz gainatik jaitsi eta Bidebietan sartu eta berehala harridura sortzen du Ardo Txokoa topatzeak. Batik bat, Gaiztarroko alde honetan ia-ia auzo bizitzarik ez dagoela kontuan hartuta. Ardo txoko ikaragarri berezia dugu hauxe, jabeak dioenez, helburua "hitz egitea" baita.

Laida Basurto

Jose Antonio Malo txokoko arduradunak dioenez, hitz egiteko eta aisialdirako gunea bat ireki nahi zuen: "Berdin zitzaidan kirol denda bat, ardo dastaketarako txoko bat edo beste edozein gunea mota irekitzea. Kontua zen jendeari biltzeko eta mintzatzeko aukera emango zion toki bat zabaltea". Azkenean, 2000. urteko urrian, ardoa dastatzeko leku bat irekitzea erabaki zuen, gai



honetan aditua ez den arren. Bere zaletasuna giza harremanak direla esan digu. Horregatik, lan egunetan publizitatearen munduan aritzen da eta asteburuetan Ardo Txokoa egon ohi da, jendeari solasaldia eskaintzeko. Ardoari buruz orain ikasten ari dela dio, bezeroek erakusten diotenari esker.

Txokoa larunbatetan 10.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 21.00etara eta igandetan 10.00etatik 14.00etara

egoten da irekita. Nahi duena bertara joan daiteke. Jose Antoniok azaldutakoaren arabera, jendeari 1.300 pezeta inguruko ardoak irekitzen dizkio musutruk. Ardorik onenak, hala ere, une berezietan besterik ez omen ditu irekitzen, "bestela, garesti samar aterako litzaidake eskaintza". Ardoarekin batera, txorizoa eta ogia atera ohi ditu. Giro honek elkarrizketarako aukera ematen du: Jose Antonio Malok esan

**Malok ardoa doan ematen dio jendeari**

digunez, bere zaletasunei eta lanbideei buruz galdetzen dio jendeari, eta solasean aritzen dira. Ondoren, ardoa gustatu bazaie, erosteko aukera dute. Hori bai, helburua hitz egitea dela nabarmendu digu Malok. Bitxia, benetan.



**LEHIAKETA**

10 sarrera ditugu "Feliz cumpleaños, señor Ministro" antzezlanerako. Bost lagunentzat bina Emanaldia maiatzaren 11n izango da, Antzoki Zaharrean, 20.00etan. Apirilaren 6an, goizeko 09.00etatik aurrera 943-467181 telefonora deitzen duten lehendabiziko sei lagunentzat izango dira sarrerak.

**"El hombre más feliz del mundo"**

Joan den asteko irabazleak:

Arantza Pikasari  
Xila Pihlstrom  
Inaxio Imaz  
Biki Murua  
Iñigo Ruiz

